

GRUPO LABORAL KUTXA

ESG INBERTSIO, FINANTZAKETA ETA ASEGURAMENDU POLITIKA



Egilea LABORAL Kutxa Taldea
Dokumentu mota Politikak eta Eskuliburuak
Data 2023ko XX
Bertsioa V1.0

Con formato: Sin Resaltar

Con formato: Sin Resaltar

Con formato: Sin Resaltar

Con formato: Sin Resaltar

Tabla con formato

Edukia

1	PROPÓSITO	3
2	ALCANCE	3
3	ESTÁNDARES INTERNACIONALES.....	4
4	PRINCIPIOS Y CRITERIOS DE INVERSIÓN, FINANCIACIÓN Y ASEGURAMIENTO ESG.....	4
5	CLIENT ENGAGEMENT.....	5
6	EXCLUSIONES, SECTORES SENSIBLES Y CONTROVERSIAS	6
6.1	Exclusiones Generales.....	6
6.2	Sectores sensibles	7
6.3	Marco de Gestión de Controversias.....	9
7	PROCESO DE IMPLEMENTACIÓN	10
8	GOBIERNO.....	10
9	APROBACIÓN	11

1 HELBURUA

Hasiera-hasieratik, eta Kreditu Kooperatiba den aldetik, LABORAL Kutxa Taldearentzat lehentasun izan dira kudeaketa etikoa, banku-jarduerak gizartean duen eraginagatiko kezka, gobernu korporatibo ona eta ingurumena zaintzea.

Gure komunitateetako biztanleen garapena eta aurrerabidea bultzatzeko eta herri parekideago eta bidezkoagoak lortzearen lan egiteko konpromiso sendoa dugu, erakunde garen aldetik, sortu ginenetik. Taldeak, gainera, egungo erronkei aurre egiteko moduko nortasuna eta xedea izatea lortu nahi du. Horretarako, erakunde gisa bereizgarri dituen ezaugarriak eguneratu ditu, entitateak nahi dituen printzipioak eta portaerak finkatuz, bai barrukoak, bai bezeroekiko eta gizartearekikoak. Ingurumenaren eta gizartearen arloko jasangarritasuna funtsezko oinarria da Taldearen estrategian, bai gizartearen garapenean laguntzeko, bai klima-aldaketak, ingurumenaren narriadurak eta baliabideen agortzeak eragindako erronkei erantzuteko helburu orokorra betetzen laguntzeko.

Politika honen xedea da LABORAL Kutxa Taldeak ESG helburuak arlo guztietan betetzeko beharrezkoak diren ekintzak egitea; zehazki, helburu hauek ditu:

- Taldeko entitate eta negozio-unitate guztiek jasangarritasun-estrategiarekin bat egitea.
- *Stakeholder* guztiei laguntzea eta, elkarriketaren eta *engagement*aren bitartez, trantsizio jasangarri baterantz bideratzea.
- Lehen babes-hesi izatea, sektore edo jarduera jakin batzuekin izan ezik (kooperatibaren balioen eta ESG helburuen aurkakoak direlako), eta beste batzuk kontuan hartzekotzat eta jarraipen berezikotzat zehaztea (ESG helburuekin kontraesanean egon daitezkeelako).
- Talde osoaren finantzaketa, aseguramendu eta inbertsioko ESG printzipioak eta irizpideak ezartzea, produktu eta harreman jasangarriagoak izateko.
- Aurreko helburuak lortzeko beharrezkoak diren printzipioak, prozesuak eta gobernu-esparrua zehaztea.

Politika hau aterki bat dela esan daiteke, eta Taldearen entitate eta negozio-unitate guztietan jasangarritasunarekin eta ESG gaiekin loturik sortzen diren gainerako politiketan kontuan hartu beharrekoa da. Horretaz gain, honako hauek ere atxikiko zaizkio Politika honi (ez da zerrenda itxia, adierazgarria baino ez):

- ESG arriskuak txertatzeko politika
- *Sustainability Bond Framework*

2 HEDADURA

Politika hau LABORAL Kutxa Taldeko entitate hauei aplikatuko zaie:

- Caja Laboral Popular Coop. de Crédito, bai inbertsio-negozioari dagokionez (Diruzaintza eta Kapital Merkatua), bai finantzaketari dagokionez.
- Caja Laboral Gestión, S.G.I.I.C., S.A.
- Caja Laboral Pensiones S.A., G.F.P.
- Seguros Lagun Aro S.A., inbertsio-negozioari dagokionez, eta aseguramenduari dagokionez.
- Seguros Lagun Aro Vida S.A., inbertsio-negozioari dagokionez, eta aseguramenduari dagokionez.

Entitate horiek eta haien negozio-unitateek garatutako politikek eta/edo prozedura indibidualek bat etorri beharko dute dokumentu honekin, bai inbertsioaren esparruan, bai finantzaketan eta aseguramenduan.

Taldearen finantzaketa- eta inbertsio-produktu guztiak politika honen eraginpean sartzen dira, eta onetsi ondoren egiten diren eragiketa berriei aplikatuko zaie. Dagoen inbertsio-*portfolioa* berrikusiko da, desadostasun garrantzitsuak sortuko balira ere; desadostasunik sortuko balitz, politika honetan aurreikusitako

prozeduraren arabera jokatu da (ikus 6.3 atala). Dena den, ez da aplikatuko entitateak erabakitzeke ahalmenik ez duen zeharkako inbertsioen kasuetan, hau da, inbertsioaren gestioa zuzenean esleitu ez zaion kasuan (adibidez, ETFak, indizeak, indizeen erreplikarako estrategiak edo inbertsio-funtsak). Gestioa eskuordetuta duten inbertsioei buruzko politika espezifikoak (hala nola Norbolsa, Lamiak eta abarren bitartez egindakoak) eskuliburu batean berariaz garatuko ditu Diruzaintzak eta Kapital Merkatuak.

3 NAZIOARTEKO ESTANDARRAK

LABORAL Kutxa Taldeak ekonomia eta gizarte bidezkoago eta jasangarriago baterako trantsizioa sustatu eta babestu nahi du, aktiboen gestio, aseguramenduko eta finantzaketako jardueraren bitartez. Horretarako, printzipio eta helburu jakin batzuei atxiki zaie eta, horien bitartez, isurietan neutroa den ekonomia baterako trantsizioan eta ESG helburuak betetzen lagundu nahi da, aktiboki; hona hemen printzipio eta helburu horiek:

- **Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioak (BAR)**; negozioa nazioartean, estatuan eta eskualdean zehaztu diren garapen- eta jasangarritasun-helburuekin estrategikoki lerrokatzeke gida direnak.
- **Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH)**; Taldeak aktiboki babesten ditu planteatutako helburuak eta, beraz, proposatutako 17 helburuetan eragin negatiboa edo kontraesankorra duten jarduerak/sektoreak saihesten dira eta,aldi berean, helburu horiek betetzeko lagungarri diren ekintzak bultzatu.

Gainera, arreta berezia emango zaie jarduketetan erreferentzia izango diren honako printzipio hauei:

- **Inbertsio Arduratsuaren Printzipioak (IAP)**, ingurumenarekin, gizartearekin eta gobernu korporatiboarekin lotutako gaiak inbertsioetan duten eragina ulertzeko balio dute, baita sinatzaileei gai horiek beren erabakietan txertatzeari buruzko aholkuak emateko ere.
- **Aseguru Jasangarritasunerako Printzipioak (AJP)**; aseguruaren sektoreak ingurumenaren, gizartearen eta gobernatzaren arloko aukera eta arriskuei aurre egiteko esparru orokor gisa balio du.

Azkenik, Taldearen balioekin bat datozen Europako nahiz munduko estandar, printzipio eta gida guztiekin lerrokatuta egoten saiatuko da, beti, Taldea.

4 ESG INBERTSIOKO, FINANTZAKETAKO ETA ASEURAMENDUKO PRINTZPIO ETA IRIZPIDEAK

Inbertsioko, finantzaketako eta aseguramenduko erabakietan LABORAL Kutxa Taldeak aintzat hartuko dituen printzipioak eta irizpideak Kreditu Kooperatibaren legatuak eta izaerak baldintzatzen ditu, gestio etikoa eta gizartearen bidezko aurrerabidea izanik xede. Printzipio eta irizpide horiek bat datoz *Zentzua* ekimenean aterako ondorioekin, hau da, kooperatibaren helburuari buruz egindako hausnarketa-prozesuaren ondorioekin..

Gainera, LABORAL Kutxa Taldeak kontuan izango ditu, negozioaren esparru guztietan, Nazioarteko Estandarren aurreko atalean aipatutako printzipioak. Bereziki erreparatuko zaie Inbertsio Arduratsuaren Printzipioei (IAP), Banku-jarduera Arduratsuaren Printzipioei (BAP) eta Aseguru Jasangarrien Printzipioei (AJP). Hona hemen printzipio horiek:

1. Taldearen negozioek pertsonengan eta ingurumenean duten eragina aztertzea.
2. ESG gaiak negozioan (inbertsioan, finantzaketan eta aseguramenduan) txertatzeko eta eragin negatiboak murrizteko helburuak ezartzea.
3. ESG arriskuak murriztea edo arintzea.
4. Inbertsioko, finantzaketako eta aseguramenduko prozesuetan printzipioak aintzat hartu eta aplikatu daitezzen sustatzea.

5. Printzipioak aplikatzean eraginkortasuna, informazioa eta aurrerabidea hobetzeko elkarrekin lan egitea.

Bai zorroak osatzean, bai inbertsioak egiteko aktiboen aukeraketan, bai finantzatu edo aseguratu beharreko proiektuetan, LABORAL Kutxa Taldeak hainbat estrategia uztartzen ditu:

1. Enprekin **hitz egitea eta botoa baliatzea** edo *engagementa*. LABORAL Kutxa taldeak interes-taldeen (stakeholderak) elkarrizketa bultzatzea eta bideratzea lortu nahi du, ESG helburuak betetzen laguntzeko, esate baterako, prozesuak eta jarduera deskarbonizatzeko trantsizio-planetan laguntza emanez.
2. **Nazioarteko araudien eta giza eta lan eskubideen aurkako jokabideen aurkako portaerak izateagatik baztertzea, eta jarduera edo sektoreak baztertzea**. Sektore horiek 6. atalean zehaztu dira.
3. **ESG irizpideak txertatzea inbertsioak hautatzean edo balorazioetan**: LABORAL Kutxa Taldeak, ahal denean, eta entitate eta negozio-unitate bakoitzaren politika zehatza kontuan hartuta, ESG gutxieneko balorazioa duten enpresa eta proiektuak hautatuko ditu, DNSH (*Do No Significant Harm*) irizpidearen arabera; enpresa eta proiektu horiek analisi finantzario tradizionala gainditu beharko dute aurretiaz. Horretarako, jasangarritasun-rating publikoak (hala nola Sustainalytics Rank¹ zerrendan argitaratzen direnak) edo eskuragarri dauden beste batzuk erabiltzen saiatuko da Taldea, politika zehatzean ezarritakoaren arabera eta barnean finkatutako atalaseen arabera.
4. **Inbertsio/finantzaketa tematikoak**: LABORAL Kutxa Taldeak aktiboen inbertsioari/finantzaketari emango dio lehentasuna, industria guztietan ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-balioa hobetzea helburu duten epe luzeko jasangarritasun-joera nagusiekin bat etorritik.

5 CLIENT ENGAGEMENT

LABORAL Kutxa Taldearen xede diren ESG konpromisoen eta balioen ildotik, bezeroari laguntzeko eta *engagemente*ko jarduera aztertuko da, bazterketaren edo murrizketaren aurrean. LABORAL Kutxak kontrako alderdiekin eta *stakeholderekin* harremanari eusten saiatuko da, ahal denean, elkarrizketaren bitartez edo botoa baliatuta, Entitatearen balioak aintzat hartzen dituzten estrategiak lortzeko bidean elkarrekin aurrera egiteko eta gidatzeko xedez. Jardunbide horiek finantzaketa-prozesuetan zein aseguratamendu- eta inbertsio-prozesuetan gauzatuko dira.

Alde batetik, bazterketetan eta sektore sentikorretan ezarritako baldintzen barruan, *engagement* jarduerak esan nahi du lankidetzan arituko dela baztertuta edo mugatuta dauden edo egoteko arriskuan dauden sektoreetako kontrako alderdiekin, desinbertsiorik eta/edo ez berrituz gerta ez dadin, elkarrizketaren bitartez, sektore edo egoera desiragarrietarako trantsizio-estrategia bat sortzeko eta bultzatzeko helburuarekin. Trantsizio hori egingarria ez den kasuetan edo gerora sortutako egoera larrien kasuan soilik planteatuko litzateke bezeroarekiko edo kontrako alderdiarekiko harremana etetea, modu ordenatuan betiere, Desadostasunak Kudeatzeko Esparruaren barruan erabakia hartzen denetik gehienez ere urtebeteko epean, hasiera batean.

Beste alde batetik, inbertsioei dagokienez, ahal den heinean konpainiekiko elkarrizketaren bitartez garatuko da *engagementa*, edo zerbitzu horren hornitzaileen bitartez, haien negozio-eredua, arriskuak eta aukerak ulertzen saiatuz, baita haien jasangarritasun-estrategia, ESG txostenak eta gestioak ere, edo *proxy voting*aren bitartez..

¹ <https://www.sustainalytics.com/esg-ratings>

6 BAZTERKETAK, SEKTORE SENTIKORRAK ETA DESADOSTASUNAK

LABORAL Kutxa Taldeak bere negozioaren etapa bakoitza politika honetan zehaztutako helburu, printzipio eta irizpideekin bat etortzea lortu nahi du. Hori lortzeko funtsezko etapetako bat da bezero edo konpainia berriekiko harremanaren hasiera. Bazterketak lehen hesi izaten dira, ESG irizpideak prozesu horietan txertatu direla ziurtatzeko. Horretarako, LABORAL Kutxa Taldeak baztertu edo mugatu egiten ditu hurrengo azpiataletan egiten diren jarduerak eta sektoreak.

Hurrengo azpiatalean zehaztutako bazterketa orokorrez gain, Taldeak jarraipena egin eta/edo murrizketak aplikatuko dizkie gizartean edo ingurumenean eragin negatibo nabarmena izan dezaketen jardueri edo sektore sentikorrei.

Politika honi eta haren hedadurari dagokienez, "bazterketa" aplikatuko zaie Taldeak sortze berririk egingo ez duen jardueri, eta "sentikor" izango dira, halaber, balizko murrizketak izan ditzakeen sektore batekoak izateagatik arreta berezia emango zaien sektoreak; kasu horietan, sektore horietako jarduera mugatu ahal izango da, baldin eta halakorik erabakitzen bada, hainbat faktoreen azterketan oinarrituta, hala nola kontrako alderdiaren negozio mota, partaidetza-ehunekoa edo objektu soziala.

Kasuistika oso handia izaki, bazterketa edo sektore guztiak eta sentikortzat jo daitezkeen jardueretarako jarduketa-esparrua, a priori, zehaztea oso zaila denez, Desadostasunak Kudeatzeko Esparrua gakoa izango da aplikatu beharreko definizioak edo balizko zalantzak argitzeko.

6.1 Bazterketa Orokorrak

LABORAL Kutxa Taldea ez da sartuko jarduera/konpainia jakin batzuetan; hain zuzen ere, [Nazioarteko Finantza Ekintzako Taldeak \(GAFI\) argitaratzen duen zerrenda beltza](#) esaten zaion "arriku publiko handikotzat identifikatutako jurisdikzioen" zerrendako herrialdeetakoak diren jarduera/konpainien kasuan.²

Gainera, ez du harremanik izango Norges Bank Investment Management (NBIM) erakundeak argitaratutako "[Konpainien behaketa eta bazterketa](#)" zerrendan agertzen diren konpainiekin³. Norvegiako funts subirano horrek epe luzeko ikuspegia duen erantzukizuneko eta etekinen kudeaketako politika bat aplikatzen du, egungo eta etorkizuneko belaunaldien garapena sustatzeko asmoz, eta politika hori bat dator LABORAL Kutxak Zentzuan definitutako helburuarekin. NBIMren bazterketa-zerrendari atxikitzeak aukera ematen dio LK Taldeari erreferente azkarra, ospe handikoa eta kontraste errazekoa izateko, eta erreferente hori bereziki beharrezkoa da inbertsio-jarduerarako, erabakiak pertsona gutxi batzuek hartzen dituztelako eta banakako analisiak egiteko gaitasuna mugatua izan daitekeelako.

Nolanahi ere, desadostasunen azterketak aldaketak edo salbuespenak ekar litezake zerrenda horretan (edo horietan); Desadostasunak Kudeatzeko Esparruan zehaztutako dira aldaketa edo salbuespen horiek, eta Jasangarritasun Bulegoak aldizka emango die horien berri Inbertsioko, Finantzetako eta Aseguramenduko area guztiei, modu koherentean aplikatuz, Bulegoak aldaketa edo salbuespenen inbentarioa izango duenez.

Hona hemen baztertzeko erabakia hartzea ekarriko luketen egoerak (ez da zerrenda itxia, adierazgarria baino ez):

- Ustelkeria, eroskeria eta diru-garbiketa arazo larriengatik kondena judizialean zuzenean eta modu esanguratsuan inplikaturik egon diren jarduerak/konpainiak, baita Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala urratu duten jarduerak ere.

² <https://www.fatf-gafi.org/en/publications/High-risk-and-other-monitored-jurisdictions.html>

³ <https://www.nbim.no/en/responsible-investment/exclusion-of-companies/>

- Gobernu batek edo beste eragile batzuek egindako giza eskubideen urraketetan zuzenean eta modu esanguratsuan parte hartu duten edo urraketa horretatik etekina izan duten jarduerak/konpainiak, gobernu edo eragile horrekin harremana dutelako esparru horretan.
- Legeria, kodeak edo hitzarmenak maiz eta larriki urratu dituzten jarduerak/konpainiak, beren jokabidea aldatu izana frogatu ezean.
- Giza klonazioaren bidez edo Europar Batasunak baimendu gabeko tekniken bidez sortutako produktuak saltzen edo sortzen dituzten jarduerak/konpainiak, adibidez, haragia ekoizteko homologatu gabeko teknologia erabiltzen dituztenak.
- Horretaz gain, desadostasunak proposatu ahal izango dira jarduerak/konpainia bat herrialde hauetakoren batean kokatzen bada: zergen ondoretarako lankidetzarik eskaintzen ez duten EBko herrialde eta lurraldeetan, eta [Nazioarteko Finantza Ekintzako Taldeak \(GAFI\) argitaratutako zerrenda grisean edo "gehiago zaindu beharreko jurisdikzioen" zerrendan](#) agertzen diren herrialdeetan⁴. Bazterkeria horiek ez dira automatikoak izango; aitzitik, banaka egingo dira, entitate, negozio-unitate, Jasangarritasun Taldeko kide edo beste stakeholder batek desadostasuna proposatuz gero.

Halaber, desadostasunak ebazteko dagokion esparruan erabaki hori hartuz gero (ikus eranskina), zerrendetan agertu ez arren, ingurumenean eta/edo gizartean ondorio garrantzitsuak eragiten dituzten eta trantsizio-estrategia eta -plan egokirik ez duten jarduerak edo konpainiak baztertu ahal izango dira.

6.2 Sektore sentikorrak

Jarraian, jasangarritasunari dagokionez Taldearen estrategiarekin, hasiera batean, bat ez datozelako arreta berezia emango zaien sektoreak eta jarduerak zehaztuko dira. Jarduera horiek honela daude banatuta: a priori baztertuta geratzen diren jarduerak (salbuespenak onar baitaitezke) eta zaintzapean daudenak.

Proiektu edo konpainia horiekin elkarriketaren edo laguntza ematearen aukera aztertu ahal izango da, Taldearen ESG ikuspegitik onargarriak diren baldintzetarako trantsizioa lortzeko. Bazterketaren albuespenak kasuan kasu aplikatuko dira, desadostasunak aztertuta.

A priori baztertuta geratzen diren jarduerak, sektore sentikorretakoak

Zoria

- Ausazko jokoak eta, bereziki, online apustuak eta/edo mendekotasuna sortzeko arrisku handia dutenak sustatu, garatu edo eskaintzen dituzten jarduerak.

Salbuespena

- Benetan helburu soziala duten jarduerak. Esate baterako, ONCE Gizarte Taldeak egiten dituenak, kolektibo jakin batzuk gizarteratzea baitute helburu.

Ikatza

- Ikatz-meatze berriak irekitzea edo lehendik daudenak handitzea dakarten jarduerak.
- Ikatzezko zentral elektriko berriak irekitzea dakarten jarduerak.
- Ikatza erauzi, prestatu eta banatzearekin lotutako jarduerak.

Defentsa

- Gerrako armen ekoizpena, mantentze-lanak edo salerosketa xede dituzten jarduerak, bereziki, giza eskubideak urratzeko arrisku handia duten herrialdeetara bidaltzeko direnean.
- Zuzenean baztertzen dira arma polemikoen ekoizpena, mantentze-lanak edo salerosketa, hau da, jendea bereizi gabe edo neurritz kanpo zauritu dezaketen armak. Arma polemikotzat hartuko dira honako hauek:

⁴ <https://www.fatf-gafi.org/en/publications/High-risk-and-other-monitored-jurisdictions.html>

- Pertsonen aurkako minak
- Arma biologikoak, kimikoak edo nuklearrak
- Barreiatze-munizioak edo uraniozkoak

Salbuespena

- Aisialdiko armekin lotutako jarduerak salbuespen izango dira.

Sexuaren merkantilizazioa

- Pertsonen sexu-esplotazioa eragiten edo babesten duten eta Giza Eskubideen aurka doazen jarduerak, hala nola prostituzioa edo material pornografikoaren ekoizpena.

Meatzaritza

- Gatazka-iturri diren mineralak eraztearekin edo metodo polemikoen bitartez eraztearekin loturiko jarduerak, hala nola:
 - Ur sakonetako meatzaritza
 - Uranioa edo amiantoa eraztea
 - *Mountain-top Removal* (MTR) metodoa erabiltzea
 - Erauzketa gatazka armatu bat aktibo dagoen zonaldeetan
 - Urrea eta diamanteak eraztea ziurtagiririk gabe ziurtapen-prozesurik gabe

Con formato: Inglés (Reino Unido)

Tabakoa

- Tabakoa edo osasunerako kaltegarriak diren antzeko elementuen ekoizpena eta prozesamendua bultzatzen duten jarduerak.

Salbuespena

- Banaketako jarduerak, tabakoa eta tinbrea saltzeko baimena duten establezimenduak (estankoak) direnean izan ezik.

Sektore sentikorren edo zaintzapeko sektoreen barruan sartzen diren beste jarduerak batzuk:

Energia

Trantsizio energetikoan funtsezko sektore izaki, lehen aipatu ditugun ikatzaren ustiapena eta meatzaritza izan ezik, energiaren sektorea sentikortzat hartzen da, baina ez da baztertzen. Honako hauek saihestu egin beharko dira, kalte adierazgarria dakartelako:

- Presen Munduko Batzordearen esparrua betetzen ez duten proiektu berriak babesteko jarduerak, eskala handiko presak (25MW) sortzeko badira.
- Petrolio araututako prozedurei jarraitu gabe garraiatzeko jarduerak, gas-esplorazioa Artikoa, harea bituminosoen tratamendua eta *fracking* teknika erabiltzen duten erauzketa-jarduerak.
- Zentral nuklear berriak sortzearen aldeko jarduerak.
- Erregai fosilekin lotutako jarduerak, CO2 isuriak eta ingurumen-inpaktua murrizteko trantsizioko estrategia argirik zehaztu ez dutenak.

Hala ere, energia-efizientzia, karbono-neutraltasuna eta karbono-aztarna konpentsatzea, teknologia berriak eta energia garbiak sustatzeko eta energia berriztagarria sortzea sustatzeko inbertsioei emango zaie lehentasuna.

Teknologia berriak

- Teknologia berriekin edo garatze-bidean dauden teknologiek lotutako jarduerak, hala nola Adimen Artifiziala, Bioteknologia edo Big Data, garapen teknologiko eta sozialerako iturri garrantzitsua izan daitezke. Horregatik, ezin dira, oro har, baztertu, nahiz eta arrisku etikoak, balizko diskriminazio- edo abusu-egoerak eta abar ere ekar ditzaketen.

6.3 Desadostasunak Kudeatzeko Esparrua

Gerta daiteke, zenbait egoeratan, berehala ezin erabaki ahal izatea inbertsioaren, finantzaketaren edo aseguramenduaren xede den konpainia edo jarduera bat baztertu beharrekoen taldean sartzen ote den, edo harekiko harremana bat ote datorren LABORAL Kutxa Taldeak sustatzen dituen balioekin.

Horregatik, Desadostasunak Kudeatzeko Esparru hau sortzea erabaki da, Taldeak ahalik eta hobekien jardungo duela bermatzeko, gardentasunez eta barne-koherentziari eutsita.

- Balizko desadostasun bat sor daiteke kontrako alderdi bat politika honetan zehaztutako estandar, printzipio edo irizpideen aurka ari dela hautematen denean edo kontrako alderdiren batek normalean baztertu egiten den edo bereziki zaindu beharreko jardueraren bat egiten duenean, eta baztertu behar den ala ez desadostasuna sortzen denean, betiere 6.1 eta 6.2 ataletan azaldutakoaren arabera.
- Horretaz gain, interes-gatazka egon daiteke aukera estrategikoak eskaintzen dituzten erakundeen edo negozio-unitateen artean, edo entitatearen errentagarritasunean galera ekar dezake beste *stakeholder* batzuen aldean, edo izen onarekin lotutako auziak

Ekintza-plan bat ala beste ezarri ahal izango da, desadostasuna zer etapatan sortu den kontuan hartuta:

- **Inbertsioaren sorrera/onarpena/erabakia**
- **Jarraipena eragiketaren/inbertsioaren iraunaldian**
- **Berritzea**

Desadostasunak kudeatzeko esparru edo fluxuaren barruan sartzen dira honako hauek:

1. Desadostasun bat hautematea (batez ere, negozio-unitate batek edo arriskuak onartzeagatik, edo Jasangarritasun Bulegoak (JB), baina beste area batek edo beste *stakeholder* batek ere hauteman dezake), lehendik dagoen konpainia edo eragiketa batean, edo ematen/inbertitzean.
2. Desadostasunak Kudeatzeko Mahai batek ebaluazioa egitea, Jasangarritasun Taldearen (JT) azpitalde gisa, JBaren zuzendaritzapean. Kasuan kasu, honako hauen ordezkariak bilduko dira mahai horretan: negozio-areak bat edo batzuk, Arriskuak (Globalak edo Jarraipena) eta, hala badagokio, bereziki eraginpean dauden *stakeholder*ak, baita Komunikazioa ere; egoera orokorrean aztertu, eta jarraitu beharreko prozedurari buruzko erabaki bat hartu beharko dute, eta idatziz jasota utzi.
3. Aurreko etapen erabakirik hartzen ez bada, desadostasuna gobernu-organo batera helaraziko da, ebazpena eman dezan. Entitate bakoitzak zehaztuko du gobernu-organo hori zein izango den; LABORAL Kutxaren kasuan, Jasangarritasun Batzordea izango da, eta eraginpeko negozio-unitatearen partaidetza bermatuko da.

Taldeko entitate bakoitza arduratuko da desadostasunak kudeatzeko fluxu zehatza definitzeaz, baita bertan norik parte hartuko duen zehazteaz ere, prozesu arina izan dadin eta ez dezan ohiko jarduna eragotz; goi-mailako gobernu-organoek ezohiko egoeretan baino ez dute parte hartuko.

Gainera, desadostasunak kudeatzean, entitate bakoitzaren barruan auzi horri buruz egon daitezkeen politika zehatzak hartuko dira aintzat.

7 EZARPEN-PROZESUA

Politika hau ezartzeko prozesua banan-banan zehaztuko dute 2. atalean hedaduraren barruan sartutako entitateek.

Helburua da hemen deskribatutako bazterketa orokorrak LK Talde osoan errespetatzea, aterki komun edo Politika Orokor gisa. Horretaz gain, zaintzapeko jardueren jarraipenari dagokionez, jarduera horiek bat etorriko dira entitate bakoitzaren jardunarekin eta negozio motarekin (Kontrako alderdiaren aurrean hedadura edo irismen handiagoa izango da txikizkako eragiketen kasuan, handizkakoetan baino).

Jasangarritasun Bulegoak (JB) informazioa eta beharrezkoak diren komunikazioak koordinatuko ditu, desadostasunak eta hartutako erabakiak jakinaraziko ditu, eta parte hartzen duten entitateei erabaki arrazoituak hartzen lagunduko die, politikarekin bat etor daitezten.

Bere eginkizun dira, besteak beste, sei hilean behin honako zerrenda hauek banatzea: Nazioarteko Finantza Ekintzako Taldeak (GAFI) argitaratzen dituen "arriku publiko handikotzat identifikatutako jurisdikzioen" zerrenda (zerrenda beltza) eta "gehiago zaindu beharreko jurisdikzioen" zerrenda (zerrenda grisa), eta Norges Bank Investment Management (NBIM) erakundeak argitaratzen duen "Konpainien behaketa eta bazterketa" zerrenda. Gainera, aztertutako desadostasunen eta horien ebazpenen inbentarioa egingo du, desadostasun horietatik sor daitezkeen aldaketak edo salbuespenak ere sartuta. Era berean, bazterketa/murrizketen eraginpeko entitateei neurrien eguneratzeen berri emateko ardura izango du.

Bestalde, LABORAL Kutxa Taldeak bere entitateekin partekatuko ditu *engagementa* ezartzeko eta bazterketak, murrizketak eta desadostasunak kudeatzeko zehazten dituen bitartekoak. Gainera, Taldeak kanpoko ESG rating-hornitzaileen babesa izango du, ESG arriskuei dagokienez konpainia jakin baten egoera zein den aztertzeko eta dagokion neurri egokia zehazteko kontraste-tresna gisa, eta ESG rating-hornitzaile izateko hautatutako erakundearen webgunea kontsultarako oinarritzko erreferentzia izango da, bereziki, desadostasunak kudeatzean.

8 GOBERNUA

Politika honi dagokionez, Taldearen gobernantza lau etapatan banatzen da: aplikatu beharreko politika prestatzea, balidatzea, eztabaidatzea eta onestea.

- Jasangarritasun Bulegoa arduratuko da horri buruzko dokumentazioa **prestatzeaz**, baztertutako/mugatutako sektoreak eta ESG inbertsio-lehentasunak zehazteaz, horiek urtero berrikusteaz eta, beharrezkoa izanez gero, eguneratzeaz. Desadostasunak Kudeatzeko Esparrua koordinatuko du.
- Jasangarritasun Bulegoa, Arriskuen Kontrola eta Lagun Aro, Caja Laboral Gestión eta Caja Laboral Pensiones entitateetako ordezkariak, Finantzaketa eta Diruzaintza/Inbertsioa izango dira **balidazio**-fasearen erantzule, eta Politika Orokor honetarako eguneratzeak proposa ditzakete. Nolanahi ere, negozioaren edo jarduera-eremuaren berezitasunekin bat datozen politika bereziak garatu ahal izango dituzte.
- Zuzendaritza Kontseilua eta Jasangarritasun Bulegoa biltzen dituen Jasangarritasun Batzordean izango dira Politikari buruzko **eztabaidak**, eta Kontseilu Errektorera helaraziko dira.
- Kontseilu Errektoreari dagokio Politika behin betiko balidatzea eta **onestea**.

9 ONESPENA

Politika bera eta Politikaren aldaketa oro Caja Laboral Popular Coop. de Crédito entitatearen Kontseilu Errektoreak onetsi behar ditu, baita Caja Laboral Gestión, S.G.I.I.C., S.A., Caja Laboral Pensiones S.A., G.F.P., Seguros Lagun Aro Vida S.A. eta Seguros Lagun Aro, S.A. entitateen Administrazio Kontseiluek ere.

Taldeko entitate bakoitza atxikiko zaio politika honi, dagokion Administrazio Kontseiluaren bitartez.

Politika aldizka berrikusiko da, eta politikaren izaeran edo egituran eragin nabarmena duten inguruabarrak gertatzen diren bakoitzean. Aldizka edo une jakin batean egindako berrikuspenen ondorioz Politikan aldaketak egiten badira, kasu horretan ere, goian aipatutako administrazio eta zuzendaritzako organoek berretsi beharko dituzte aldaketa horiek.

Bertsioa	Data	Organoa	Arrazoia	Aldatu diren artikulua
1	2023/09/29	K. Errektorea	Hasierako onespena	

Con formato: Sin Resaltar

Con formato: Sin Resaltar